# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2016IPLE0001
**Eguna:** 2016-01-16
**Ordua:** 09:30 – 11:25
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

- Jesus Mª Santos Anabitarte.......EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo.......EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües.......EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte.......EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos.......EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.......EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena.......EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz.......EHBildu
- Ander Goicoechea Ocariz.......EHBildu
- Ainara Vázquez Martinez.......EHBildu
- Iker Goñi Salaberria.......EHBildu
- Mª Teresa Bernal Monroy.......EHBildu
- Mikel Durán Gonzalo.......Euskadiko Sozialistak

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2015eko azaroaren 21eko aktaren onarpena** | 1 | Aprobación del acta de 21 de noviembre de 2015 |
| **497/2015 epaia betetzeko parte hartze, informazio eta gardentasun ordenantzaren aldaketa zehatza** | 2 | Modificación puntual de la ordenanza de participación ciudadana, información y transparencia para el cumplimiento de la sentencia 497/2015 |
| **EHBilduren eskaera: liberatuta dauden zinegotziak fitxatzea eta datu horiek udal web orrian argitaratzea** | 3 | Solicitud de EHBildu: fichaje de los concejales liberados y publicación de los datos en la página web |

| | | |
|---|---|---|
| **EHBilduren mozioa: garraio-hiria** | 4 | Moción de EHBildu: garraio-hiria |
| **Uholdeen aurkako eta ibaiaren aldeko batzordeko kideak izendatzea** | 5 | Nombramiento de concejales en la comisión contra inundaciones y a favor de los rios |
| **Informazio, galdera eta eskariak** | 6 | Información, ruegos y preguntas |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1. 2015eko azaroaren 21eko aktaren onarpena**

Alkateak gaztelaniazko bertsioan akats bat dagoela adierazi du, hain zuzen, 17. orrialdean, EHBildu taldeak aurkeztutako Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmenari buruzko mozioaren 3. puntuaren bozketan, Euskadiko Sozialista taldeko kidea abstenitu egin zela jartzen baitu, benetan abstenitu zirenak PNV-EAJ taldeko 6 kideek izan zirenean.

Aldaketa hori egin ondoren, akta, aho batez, onartu da.

**1. Aprobación del acta de 21 de noviembre de 2015**

El alcalde señala que en la versión en castellano existe un error, ya que en la página 17, en la votación del punto 3 de la moción sobre el Tratado Trasatlántico de Comercio e Inversiones presentada por EHBildu se señala que el miembro de los Socialistas Vascos se abstuvo, cuando los que realmente se abstuvieron fueron los 6 miembros del grupo PNV-EAJ.

Tras realizar ese cambio, el Acta es aprobada por unanimidad.

**2. 497/2015 epaia betetzeko parte hartze, informazio eta gardentasun ordenantzaren aldaketa zehatza**

Alkateak Nerea zinegotziari eman dio hitza, eta horrek ordenantza aldatzearen arrazoia Gobernu Ordezkaritzak aurkeztutako auzi-errekurtsoan datzala adierazi du, eta aldaketen nondik norakoak azaldu ditu.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta ordenantza jendaurrean egon zen bitartean ez zela alegaziorik aurkeztu adierazi du, baino gero gobernu ordezkariak errekurtsoa jarri zuela, eta epaia udalaren kontrakoa izan denez, ordenantza aldatu behar dela, eta aldaketa batzuk nabarmenak ez izan arren, loteslearen gaia baietz. Gainera, adierazi du gobernu ordezkariaren jarrera toki

**2. Modificación puntual de la ordenanza de participación ciudadana, información y transparencia para dar cumplimiento a la sentencia 497/2015**

El alcalde concede la palabra a la concejal Nerea, la cual señala que la razón de modificar la ordenanza es el recurso contencioso presentado por el Delegado del Gobierno, explicando a continuación los pormenores de dicha modificación.

Toma la palabra el concejal Andoni, señalando que mientras la ordenanza estuvo en exposición pública no se presentó ninguna alegación, pero que luego el delegado del gobierno presentó un recurso, siendo la sentencia contraria al ayuntamiento, por lo que es necesario modificar la ordenanza. Indica asimismo que aunque algunas modificaciones no sean importantes, el tema de la vinculación

erakundeen autonomiaren kontra doanez, abstenitu egingo direla.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta parte-hartze batzordean bezala abstenitu egingo dela adierazi du, gobernu delegatuaren jarrera ez zaiolako egokia iruditzen, toki erakundeen autonomia zalantzetan jartzen baitu, eta bai aldundiko bai udaletako euskaldun kutsua edo seina duen jarduera guztien kontra egin duelako. Ordenantzaren aldaketa auzi-errekurtsoaren epaia betetzeko dela gainerazi du, baina gobernu delegatuaren jarrera ez egokia dela eta bere kargutik azkar kentzea espero duela dio.

Ordenantzaren aldaketa bozkatu ondoren, onartu egin da PNV-EAJ taldeko kideen aldeko 6 botoekin, eta EHBildu eta Euskadi Sozialisten 7 abstentzioekin.

sí lo es. Señala asimismo que se abstendrán, alegando que la postura del representante del gobierno va en contra de la autonomía de las entidades locales.

Toma la palabra el concejal Mikel, y señala que se abstendrán, tal y como hizó en la comisión de participación, pues considera que la postura del delegado de gobierno es inapropiada por poner en duda la autonomía de las entidades locales, oponiéndose además a todas las actividades de corte euskaldún de diputaciones y ayuntamientos. Añade que la modificación de la ordenanza responde a la necesidad de cumplir la sentencia del recurso, pero insiste en que la postura del delegado del gobierno es inapropiada y que espera que pronto sea destituido.

Tras realizar la correspondiente votación, la modificación de la ordenanza queda aprobada, con los 6 votos a favor de los miembros del grupo PNV-EAJ, y con las 7 abstenciones de EHBildu y los Socialistas Vascos.

**3. EHBilduren eskaera: liberatuta duden zinegotziak fitxatzea eta datu horiek udal web orrian argitaratzea**

Alkateak bere alderdiak proposamena ez duela onartuko adierazi du, beste batzuetan egin ez delako eta beste udaletan – handietan izan ezik – ez delako egiten, eta beraz beharrezkoa ez dela pentsatzen baitute.

Zorione zinegotziak eskaeraren kontra ez dutela ezer, baina aurreko legealdian egin ez zena orain eskatzea ez duela normaltzat hartzen adierazi du. Eta beraiek egin ez dutena – ez Astigarragan ez agintea duten beste herrietan – orain eskatzea demagogikotzat hartzen duela esan du, eta Astigarragan fitxatu duen politiko bakarra M.Z. izan zela dio, eta horrek 1. legealdian bakarrik egin zuela.

**3. Solicitud de EHBildu: fichaje de los concejales liberados y publicación de los datos en la página web**

El alcalde señala que su partido no aprobará la propuesta, pues en otras ocasiones no se ha hecho y en otros municipios –excepto en los grandes– no se hace, por lo que no lo ven necesario.

La concejal Zorione señala que no tienen nada contra la solicitud, pero que no le parece normal pedir ahora algo que no se hizo en la anterior legislatura. Y señala además que pedir ahora lo que ellos no han hecho ni en Astigarraga ni en otras localidades donde gobiernan le parece demagógico, indicando asimismo que el único político que ha fichado en Astigarraga fue M.Z., y que lo hizo únicamente en la 1ª legislatura.

El concejal Andoni señala que por ejemplo en Andoain se ficha, y que lo que de verdad es

Andoni zinegotziak Andoainen adibidez fitxatu egiten dela dio, eta demagogikoa dena langileei fitxatuaraztea eta politikoentzat – langileak ere – baldintza bera ez eskatzea dela. Eta aurreko legealdian ez bazen eskatu, inorri (ez udal gobernu taldeari ez oposizioari) bururatu ez zitzaiolako izan zela, baino ezkutatzeko ezer ez badago, zergatik ez den fitxatu behar ez dutela ikusten adierazi du.

Mikel zinegotziak hartzen du hitza eta aurreko osoko bilkuran idazkariaren txosten juridikoa eskatu bazuen, Datuen Babeserako Lege Organikoa urratu zezakeela susmatzen zuelako izan zela adierazi du, txosten juridikoan egiaztatu dena. Eta abstenitu egingo dela aurreratzen du, baina ez fitxaketa eskaerarengatik, datu horiek publikatzeagatik baizik, liberatutako bakoitzak ikusi behar duelako datuak argitaratu edo ez.

Zorione zinegotziak, Andoni zinegotziak esandakoari erantzunez, bakoitzak ikuspegi desberdina duela adierazi dio. Eta bulego lana benetako lana ez duela isladatzen komentatu ondoren, berak hori ulertzen duen galdetu dio.

Andoni zinegotziak udal langileek ere fitxatu egiten dutela erantzun dio, eta denek ez dutela bere lanaldi osoa udalean egiten, eta kontrola berdin egiten dela, fitxatzeko makinak horretarako aukera ematen duelako.

Proposamena bozkatu ondoren, honako emaitza lortzen da: EHbilduko 6 kideen aldeko botoa, PNV-EAJko 6 kideen kontrako botoa eta Euskadiko sozialistaren kidearen abstentzioa. Beraz, alkatearen kalitate botoarekin proposamena ez da onartzen.

demagógico es hacer fichar a los trabajadores y no exigir la misma condición a los políticos, siendo también ellos trabajadores. Y que si en la anterior legislatura no se exigió fue porque a nadie se le ocurrió, ni al grupo de gobierno ni a la oposición, pero que si no hay nada que esconder no ve por qué no se puede fichar.

Toma la palabra el concejal Mikel, y señala que si en el anterior pleno solicitó el informe jurídico de la secretaria lo hizo porque sospechaba que incumplía la Ley Orgánica de Protección de Datos, lo que ha quedado demostrado en el informe jurídico. Y adelanta que se abstendrá, pero no por la petición de fichar, sino por la publicación de los datos, pues cada liberado deberá ver si publica los datos o no.

La concejal Zorione responde al concejal Andoni indicándole que cada uno tiene un punto de vista diferente. Y tras comentar que el trabajo de oficina no es un reflejo real del trabajo, le pregunta si acaso él piensa eso.

El concejal Andoni le responde que los empleados municipales también fichan, a pesar de que todos no hacen la totalidad de su jornada en el ayuntamiento, y que el control se hace igual, pues la máquina de fichar lo permite.

Se vota la propuesta, obteniéndose el siguiente resultado: el voto a favor de los 6 miembros de EHBildu, el voto en contra de los 6 miembros de PNV-EAJ y la abstención del miembro del grupo de los Socialistas Vascos. Por tanto, la propuesta queda rechazada con el voto de calidad del alcalde.

**4. EHBilduren mozioa: garraio-hiria**

Mozioa EHBildu taldeak aurkeztu duenez, alkateak Andoni zinegotziari eman dio hitza. Horrek mozioa aurkeztu aurretik, bozeramaile batzordetik pasa gabe ekarri izana harritu

**4. Moción de EHBildu: garrio-hiria**

La moción ha sido presentada por EHBildu, por lo que el acalde concede la palabra al concejal Andoni. Previamente a la presentación de la moción señala que le ha sorprendido que la

egin diela adierazi du, uztailean mozioa aurkeztu zenean, batzordetik pasa gabe udal osoko bilkurara ez zutelako eraman nahi izan, orduan batzordea oraindik ere eratu gabe zegoenean, eta eraman izan balute, aurretik adostasun batetara iristea zegoela.

Mozioa uztailean aurkeztutakoaren antzerakoa dela dio, eta berriro aurkeztu badute, Lurralde-plan Partzialaren (*Plan Territorial Parcial – PTP)* aurka aurkeztutako alegazioagatik dela adierazi du, alegazio horretan udal gobernu taldeak garraio hiriaren kontrako jarrera azaldu duenez, jarrera hori osoko bilkuran berrestea nahi dutelako.

Mikel zinegotziak hartzen du hitza eta gaia lehendabiziko aldiz aztertu zen osoko bilkuran esandakoan berresten dela dio. Bestalde hirigintza batzordean Lurralde-plan Partzialaren alegazioa aurkeztu zenean, bera abstenitu egin zela adierazi du, osoko bilkuran garraio hiriaren mozioaren kontra bozkatu zenez, ez duelako logikoa ikusten gero alegazio hori aurkeztea.

Zorione zinegotziak mozioaren kontra bozkatuko dutela adierazi du, jabetza eskuratu arte udalak ezin duelako berea ez den lur batean zer egingo den esan. Eta garraio hiria egitearen asmoa ekainean bertan behera gelditu zela.

Andoni zinegotziak garraio hiriaren kontra baldin badaude mozioaren 1. puntuaren alde bozkatzea eskatzen die, Lurralde-plan Partzialaren kontra jarritako alegazioa ez baita publikoa, eta Aldundiari esan beharko litzaiokeelako udala garraio hiriaren kontra dagoela eta bizilagunek ere udalaren jarrera ezagutu behar luketeelako.

Zorione zinegotziak mozioaren kontra daudela dio, ez garraio hiriaren alde, eta beraien jarrera Lurralde-plan Partzialari jarritako alegazioan ikusten dela. Andoni zinegotziak erantzunez mozioaren 1. puntuaren kontra egitea, garraio hiriaren alde

hayan traído sin pasar por la comisión de portavoces, ya que en julio, cuando fue presentada la moción, no quisieron llevarla al pleno municipal sin pasar por dicha comisión, cuando todavía no se había formado, y que si ahora la hubieran llevado podrían haber llegado a un acuerdo con anterioridad.

Afirma que la moción es parecida a la que presentaron en julio y que si la han vuelto a presentar ha sido por la alegación presentada contra el Plan Territorial Parcial, ya que, teniendo en cuenta que en esa alegación el grupo de gobierno municipal se ha mostrado en contra de la ciudad del transporte, quieren que dicha postura fuese ratificada en el pleno.

Toma la palabra el concejal Mikel, y señala que se ratifica en lo dicho en el pleno que analizó el tema por primera vez. Por otra parte señala que cuando se presentó la alegación del PTP en la comisión de urbanismo se abstuvo, ya que, al votarse en el pleno en contra de la moción de la ciudad del transporte, no le parece lógico presentar luego la alegación.

La concejal Zorione señala que votarán en contra de la moción, porque hasta disponer de la propiedad el ayuntamiento no puede decir qué hará en un terreno que no es suyo. Y que la idea de la construcción de la ciudad del transporte fue rechazada en junio.

El concejal Andoni le contesta que si están en contra de la ciudad del transporte voten a favor del punto 1 de la moción, porque la alegación contra el Plan Territorial Parcial no es pública, siendo necesario que la Diputación sepa que el ayuntamiento está en contra de la ciudad del transporte, y porque además los vecinos deberían conocer la postura municipal.

La concejal Zorione señala que están en contra de la moción, no a favor de la ciudad del transporte, y que su postura puede apreciarse en la alegación interpuesta contra el Plan Territorial Parcial. Y el concejal Andoni le responde que votar en contra del punto 1 de la moción es estar a favor de la ciudad del

egitea dela.

Mozio bozkatu eta ez da onartzen (EHBilduren aldeko 6 boto eta PNV-EAJ eta Euskal Sozialisten kontrako 7 boto).

transporte.

Tras la votación la moción queda rechazada con 6 votos a favor de EHBildu y 7 votos en contra de PNV-EAJ y los Socialista Vascos.

**5. Uholdeen aurkako eta ibaiaren aldeko batzordeko kideak izendatzea**

Alkateak batzorde berriko kideek zeintzuk diren esan ondoren, lehendakariaren hautaketa beste bilera batetarako utzi daitekeen galdetu du, eta udal idazkariak ezetz erantzun dio. Orduan kideren bat lehendakaria izan nahi duen galdetu du, eta Andoni zinegotziak beraiei berdin zaiela erantzun dio.

Mikel zinegotziak alkatea batzorde guztietako berezko lehendakaria dela, eta berak delegatu ezean, lehendakaria bera dela azaldu du, horren baieztapena udal idazkariari eskatuaz.

Jon zinegotziak lehendakaria alkatea izatea proposatu du, eta berriro ere bozkatzea beharrezkoa ez dela azaldu zaio.

Azalpen hauek ondoren, batzordea honela eratuta gelditu da.

Lehendakaria: Jesús Mª Santos (alkatea)
Kideak: Juan Martín Arregi (PNV-EAJ)
Andoni Gartzia (EHBildu)
Ander Goikoetxea (EHBildu)
Mikel Duran (Euskadiko Sozialistak)

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, eta batzordea eratzeko eskaerarekin batera 2015erako diru laguntzen proposamena egin zutela adierazi du, baina ez dela ezer egin, eta 2015eko aurrekontua itxita dagoenez, aukera galdu dela.

Jon zinegotziak laguntzen deialdia onartzea pentsatu zela, baina gero batzorde berezia sortu zenez, bertatik bideratzea erabaki zela

**5. Nombramiento de concejales en la comisión contra inundaciones y a favor de los ríos**

El alcalde indica quiénes formarán la nueva comisión, preguntando a continuación si la elección del presidente podría dejarse para otra reunión, a lo que la secretaria municipal responde negativamente. Después pregunta si algún miembro de la comisión quiere ser presidente a lo que el concejal Andoni responde que a ellos les da igual.

El concejal Mikel le explica que en realidad el alcalde es el preside nato de todas las comisiones, y que si no delega le corresponde a él, solicitando de la secretaria municipal la confirmación de lo afirmado.

El concejal Jon propone que el alcalde sea el presidente, y se le explica nuevamente que no es necesario.

Tras estas explicaciones, la comisión ha quedado compuesta de la siguiente manera.

Presidente: Jesús Mª Santos (alcalde)
Miembros: Juan Martín Arregi (PNV-EAJ)
Andoni Gartzia (EHBildu)
Ander Goikoetxea (EHBildu)
Mikel Duran (Socialistas Vascos)

Toma la palabra el concejal Andoni, señalando que junto a la solicitud para la formación de la comisión realizaron una propuesta de ayudas económicas para 2015, pero que no se ha hecho nada, y que se ha perdido una oportunidad por estar ya cerrado el presupuesto de 2015.

El concejal Jon señala que en un principio pensaron aprobar las ayudas, pero que como

adierazi du.

Andoni zinegotziak erantzun dio aurreko osoko bilkuran batzordeko izendapena urtarrila arte egingo ez zenez, argi gelditu zela batzorde berritik bideratzea ezinezkoa zela, eta bi egunetara egitekoa zen obra eta zerbitzu batzordeko informazio eta erregutan gaia lantzeko esan zitzaiela; eta batzorde horretan berriz, gaia aztertzeko 10 egunetara beste batzorde bat egingo zela, baina ez dela batzorderik egin.

Zorione zinegotziak deialdia egingo dela adieraztean, Andoni zinegotziak 2015eko aukera galdu egin dela erantzun dio.

luego se creó una comisión especial decidieron tramitarlas a través de la misma.

El concejal Andoni le responde que en el anterior pleno quedó claro que dado que el nombramiento no se llevaría a cabo hasta enero, resultaba imposible tramitarlo por la nueva comisión, y que se les dijo para tratar el tema en el apartado de información, ruegos y preguntas de la comisión de obras y servicios que iba a celebrarse en dos días, y que en esa comisión se les dijo que en 10 días se celebraría una nueva comisión, que finalmente no se ha llevado a cabo.

Al señalar la concejal Zorione que se va a realizar la convocatorio, el concejal Andoni le responde que la oportunidad de 2015 se ha perdido.

**6. Informazio, galdera eta eskariak**

a.- Hezkuntza

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta hezkuntza nahitaezko eta funtsezko elementu bat dela adierazi ondoren, bi galdera egin die udal gobernu taldekoei:

1.- DBHri dagokionez, lur erreserba egina dagoen eta udal ahokulari juridikoak txostena egin duen.

2.- Herri eskolari dagokionez, abenduaren 19ko prentsan eskolako handipena ordaintzeko kreditu aldaketa bat egingo zela adierazi zen arren, ez dela egin, eta horien arrazoiak zeintzuk diren.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta txostena oraindik egin gabe dagoela erantzun dio. Bestetik jaurlaritzarekin hitz egin dutela eta aurreko legealdian ez zela galderarik ez bilerarik egin esan dietela komentatu du, eta jabetza erregistroan udalaren izenean ez dagoela ezer erregistratuta.

Ikastolako obrari dagokionez, jaurlaritzak

**6. Información, ruegos y preguntas**

a.- Educación

Toma la palabra el concejal Mikel, y tras señalar que la educación es un elemento necesario y primordial, formula dos preguntas a los representantes del grupo de gobierno municipal:

1.- En lo referente a la ESO, si hay reserva de suelo y si la asesora jurídica municipal ha realizado el correspondiente informe.

2.- Con respecto a la herri eskola señala que, aunque en la prensa de 19 de diciembre se anunció que se iba a hacer una modificación presupuestaria para pagar la ampliación de la escuela, no se ha hecho nada, y pregunta por las razones para ello.

Toma la palabra la concejal Zorione, quien le responde que el informe no se ha redactado todavía. Por otra parte señala que el Gobierno Vasco les ha comentado que en la anterior legislatura no se produjo ninguna consulta ni reunión, y que en registro de la propiedad no hay nada inscrito a a nombre del ayuntamiento.
En lo referente a la obra de la ikastola señala

proiektuaren %60a bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuela adierazi du, baina gero proiektua aldatu zela, eta jaurlaritzak aldea ez duela ordainduko. Eta enpresaren ordainketa 2015. urtean egiteko dirurik ez zegoela, baina hasieratik zegoela aurreikusia 2016. urtean egiteko aukera.

que el Gobierno Vasco se comprometió a asumir el 60% del proyecto, pero que posteriormente el proyecto fue modificado, no haciéndose cargo el Gobierno Vasco de la diferencia. Añade que en 2015 no había dinero para el pago de la empresa, pero que desde un principio estaba previsto hacerlo en el 2016.

Mikel zinegotziak txosten juridikoa noizko egongo den galdetu du.

El concejal Mikel pregunta para cuándo estará disponible el informe jurídico.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta udal gobernu taldeak udalak galdu duen zenbatekoari buruz hitz egiterakoan, kopuru desberdinak erabiltzen dituela adierazi du; baina berez udalak galdutakoa, obra guztiaren zenbatekoa dela, obra hori jaurlaritzak ordaindu behar zuelako.

Toma la palabra el concejal Andoni, quien señala que el grupo de gobierno municipal, cuando se refiere a la cantidad perdida por el ayuntamiento, utiliza diferentes cifras, pero que en realidad el ayuntamiento ha perdido el total de la obra, pues el coste total debía haber sido asumido por el Gobierno Vasco.

Bestetik, azaldu du udalak 2 laguntza desberdin eskatu zituela, bakoitza bere deialdia zuena. Lehendabizikoan obraren aurreproiektua aurkeztu zela, eta hasieran onartu ez zuten arren, alegatu ondoren laguntza onartu egin zela. Bigarren deialdian berriz, obraren exekuzio proiektua aurkeztu zela, eta aurreproiektutik aldatzearen arrazoia, eraikuntzan beste pisu bat egiteko aukera izateko prestatu izana dela. Baina deialdi berrirako proiektu berri bat aurkeztu arren, ez zutela obra berriaren kostua kontuan hartu. Gainera proiektua PNV-EAJk onartu zuela dio, kontu-hartzaileak egindako finantza txostena onartu zen moduan.

Por otra parte explica que el ayuntamiento solicitó 2 ayudas diferentes, y que cada una tenía su convocatoria. Prosigue diciendo que en la 1ª convocatoria se presentó el proyecto, y que, aunque en principio no lo aceptaron, tras presentar alegaciones se aprobó la ayuda. Con respecto a la 2ª convocatoria señala que se presentó el proyecto de ejecución de la obra, y que si se ha modificado del proyecto inicial ha sido porque se había preparado para construir un piso más. Pero que, aunque presentaron un nuevo proyecto para la nueva convocatoria, no tuvieron en cuenta el coste de la obra nueva. Además dice que el PNV-EAJ aprobó el proyecto, de la misma manera en que fue aprobado el informe financiero realizado por el interventor.

Zorione zinegoziak eskola publikoa denez, eskumena jaurlaritzena dela dio, baina beraien aurreikuspenetan Astigarragak ez duela lehentasuna; eta kontu-hartzailearen txostenean jasotzen zela obra egitea ez zela udalaren eskumena.

La concejal Zorione señala que la competencia corresponde al Gobierno Vasco, por tratarse de la escuela pública, pero que Astigarraga no está entre sus prioridades; en ese sentido señala que en el informe del interventor se recogía que la ejecución de la obra no era competencia municipal.

Andoni zinegotziak azaldu du jaurlaritzak bi aukera ematen zituela, haurrak barrakoietan sartzea edo udalak lokalak alokatzea. Baina udalak eranskin bat egitea erabaki zuela, bi laguntza deialdietan parte hartuz, bakoitzean eskatzen zen dokumentazio bidaliz, eta

El concejal Andoni explica que el Gobierno Vasco daba dos opciones, meter los niños en barracones o que el ayuntamiento alquilara locales. Pero que se decidió construir un anexo,

jaurlaritzak 2. laguntza-eskaerarekin aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartu ez izana, lege eta oinarrien kontra joatea dela.

Zorionez zinegotziak maiatzean udal gobernu taldeak bidalitako idatzia oraindik ere ez dela erantzun, eta forma akatsengatik ez dutela errekurtsotzat hartu adieraztean, Andoni zinegotziak erantzun dio administrazio isiltasunaz ezetsi dela eta auzi-errekurtsoa jartzeko epea bukatu dela, eta udal idazkariari hori horrela den galdetu dio.

Horrek prozedura administratiboaren legearen arabera, errekurtso batek akatsak izan arren, zer eskatzen den ulertzen bada, onartu egin behar dela dio. Bestalde, administrazioa beti erantzutera behartuta dagoela, eta kasu honetan eskaera administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu behar dela, eta auzi-errekurtsoa aurkezteko epeak bukatu direla.

DBHko lurraren erreserbari dagokionez, Andoni zinegotziak Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza hezkuntza sailera bidali zela dio, eta ez dela egia ez dutela erreserbaren berri. Gainera, udal aholkulariak azaldu bezala, espazioa erreserbatuta dagoela dio, eta udalak erabakiz gero berea egin dezakeela, 4 urte edukirik jabeekin adostasun batetara iristeko eta ordaintzeko. Eta eremua garatuz gero, doan laga behar digutela.

Zorione zinegotziak hori lurra erreserbatzea ez dela erantzun dio eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berri ematea ez dela lurraren erreserbaren jakinarazpena egitea. Gainera, jaurlaritzak eremua jabetza erregistroan inskribatuta egotea eta urbanizatua ematea eskatzen duela adierazi du, eta obrak udalak egin behar dituela, baina ez dela aurreikusi.

y que se solicitó ayudas en dos convocatorias, remitiendo la documentación solicitada en cada caso, y que el hecho de que el Gobierno Vasco no haya tenido en cuenta la documentación presentada junto a la 2ª solicitud va en contra de las leyes y de las bases.

La concejal Zorione señala que el escrito remitido por el grupo de gobierno municipal en mayo no ha obtenido respuesta, señalando que no ha sido aceptado como recurso por defectos de forma, a lo que el concejal Andoni responde que ha sido rechazado por silencio administrativo, habiendo finalizado el plazo para la interposición de un recurso contencioso, preguntando a la secretaria municipal si efectivamente es así.

La secretaria municipal responde que, según la ley de procedimiento administrativo, aunque un recurso sea defectuoso debe ser aceptado siempre que se entienda el contenido de la solicitud. Por otra parte señala que la administración siempre está obligada a responder, y que en este caso hay que entender que la solicitud ha sido rechazada por silencio administrativo, habiendo finalizado los plazos para interponer un recurso contencioso.

En lo que hace referencia a la reserva de suelo para la ESO, el concejal Andoni señala que la modificación puntual del PGOU fue remitida al departamento de educación, y que no es verdad que no sepan nada de la reserva. Añade que, tal y como ha explicado la asesora municipal, el suelo está reservado, y que en caso de que el ayuntamiento decida quedarse con él, dispondrá de 4 años para llegar a un acuerdo con los dueños y pagar lo acordado. Y que en el caso de que la zona se desarrolle, deben cederlo gratis.

La concejal Zorione le responde que eso no es realizar una reserva de suelo, y que comunicar el PGOU no es lo mismo que comunicar una reserva de terreno. Además señala que el Gobierno Vasco exige la inscripción en el registro de la propiedad y la urbanización, y que la ejecución de las obras debe corresponder al

Andoni zinegotziak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ekainean onartu zela adierazi du, eta ordurarte ezin zela ezer egin. Eta 2015ean ez bazen zenbatekorik aurreikusi, horren arrazoietako bat ikastolako obrarentzako azken bi urteetan udalak urtero 500.000 eurori aurre egin behar izana dela.

Bizilagun batek hartzen du hitza eta PNV-EAJrentzat hezkuntza lehentasuna bada, gobernu taldean egon diren beste legealdietan zergatik ez zuten ezer egiten ikastolako guraso elkarteak aurretik eskatzen ez bazuen galdetu dio. Baita zergatik ez ziren ikastolako organo goreneko bileretara joaten.

Zorione zinegotziak hori bere iritzia dela erantzun dio, eta bizilaguna talde ilegalizatu baten ordezkari bezala joaten zela eta ez hartzeko jarrera salbatzaile bat. Gainera adierazi du EHBIlduk prozesu parte-hartzailea egin zuenean, berak DBH egin ordez lehen hezkuntza (LH) egonkortu behar zela esateagatik kritikak jaso zituela, eta ez zaiela 10 urteetan egindako lana aitortu.

Andoni zinegotziak guraso elkarteak azaroaren 27an abenduaren 2. asterako bilera bat eskatu zuela eta oraindik ere ez dela data jarri esatean, Zorione zinegotziak bera elkarteko kide den galdetu ondoren, data jarrita dagoela erantzun dio. Ander zinegotziak hitza hartuaz, bera guraso elkarteko kide dela adierazteko, eta bilera dataren berri ez duela, eta ikastolako organo goreneko bileretara zergatik ez doazen galdetu dio. Zorione zinegotziak bilera data guraso elkarteko I.Z.rekin adostu duela esan eta bileretara komenigarritzat dutenean bakarrik joaten diren arren informatuta daudela esan dio.

Andoni zinegotziak hezkuntza arduradun bat dagoenean, horrek zergatik ez duen ezer adierazi galdetzean, Zorione zinegotziak aurretik datorren gai bat dela eta berak laguntzen dion arren, zinegotziburua gaiaren

ayuntamiento, aunque no esté previsto.

El concejal Andoni señala que el Plan General de Ordenación Urbana fue aprobado en junio, y que hasta ese momento no podía hacerse nada. Y que una de las razones por las que en 2015 no se dispusó ninguna cantidad fue el hecho de que estos dos últimos años el ayuntamiento haya tenido que hacer frente a 500.000 euros anuales.

Un vecino toma la palabra y pregunta que, si para el PNV-EAJ la educación constituye una prioridad, por qué en las otras legislaturas no hacían nada si no era para responder a una solicitud de la asociación de padres de la ikastola. Y por qué no iban a las reuniones del órgano supremo de la ikastola.

La concejal Zorione le responde que eso es una opinión suya, y que el vecino en cuestión iba a las reuniones en representación de un grupo ilegalizado, invitándole a continuación a no adoptar posturas salvadoras. Además indica que en el momento en que EHBildu puso en marcha el proceso participativo, ella recibió críticas por decir que en lugar de dedicarse a la ESO había que estabilizar la educación primaria, añadiendo que no se les ha reconocido el trabajo realizado en 10 años.

El concejal Andoni señala que el 27 de noviembre la asociación de padres solicitó una reunión para la segunda semana de diciembre y que todavía no le han puesto fecha, a lo que la concejal Zorione, tras preguntarle si es miembro de esa asociación, responde que la reunión ya tiene fecha. Toma la palabra el concejal Ander para señalar que él si es miembro de la asociación de padres y que no tiene conocimiento de la fecha de la reunión, preguntando a continuación por qué no acuden a las reuniones del órgano superior de la ikastola. La concejal Zorione le indica que ha acordado la fecha de la reunión con I.Z., de la asociación de padres, y que aunque solo acuden a las reuniones cuando lo consideran conveniente, están bien informados.

berri duela erantzun dio.

Ione zinegotziak hartzen du hitza, eta 2013ko parte-hartze prozesuan Zorione zinegotzia kritikatu zuena bera izan zela adierazi du, baina gauzak gertatu bezala kontatzeko eskatu dio, berak LHrako eraiki berri bat ez egiteaz hitz egiten zuelako.

b.- Mugikortasun batzordea.

Andoni zinegotzia mugikortasun batzordeak funtziorik dituen galdetu du, adieraziz prentsaren bidez jakin baitute autobus zerbitzu berriak daudela, eta lurraldebus eta Behemendirekin adostasun batetara iritsi izanaren berri ez dietelako eman.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta Astikorekin egin zen bileran gaia aurreratu zela adieraztean, Andoni zinegotziak informazio eskatu zutela eta oraindik ez dutela jaso erantzun dio.

Nerea zinegotziak gaia alkatetzatik bideratu dela dio.

Ione zinegotziak hartu du hitza, eta batzordeak informatzaileak direla aipatu ondoren, informazioa emateko batzordeak egitea eskatu du, bertan botoa ez eman arren. Nerea zinegotziak informazioa ez dela ezkutatzen erantzun dio, eta Andoni zinegotziak informazio asko eskatu eta ematen zaiola.

Ramon zinegotziak hartu du hitza eta teknikariarekin batera batzordea prestatzen dagoela adierazi du, baina ondo prestatzeko atzeratu dela adieraztean, Andoni zinegotziak Behemendiren txostena eskatu eta ez zaiola eman adierazi du batetik, eta bestetik, prentsara bidaltzeko informazioa baldin badago zinegotziei emateko ere badagoela komentatu. Ramon zinegotziak azken horrekin ados dagoela erantzun dio.

El concejal Andoni pregunta por qué el responsable de educación no dice nada al respecto, a lo que la concejal Zorione responde que se trata de un tema que viene de antes, que ella le ayuda y que está al tanto del tema.

La concejal Ione toma la palabra, y señala que fue ella quien criticó a la concejal Zorione en el proceso participativo de 2013, pero le pide que cuente las cosas como sucedieron, ya que ella se refería a la construcción de un nuevo edificio de educación primaria.

b.- Comisión de Movilidad.

El concejal Andoni pregunta si la comisión de movilidad tiene funciones, señalando que se han enterado por la prensa de la existencia de nuevos servicios de autobús, y que nadie les ha dicho nada de que se haya llegado a un acuerdo con Lurraldebus o Behemendi.

Toma la palabra la concejal Nerea, para señalar que el tema se adelantó en la reunión que hicieron con Astiko, a lo que el concejal Andoni responde que solicitaron información y todavía no se les ha facilitado.

La concejal Nerea indica que el tema se tramitó a través de alcaldía.

Toma la palabra la concejal Ione, quien tras señalar que las comisiones son informativas, solicita que se convoquen comisiones para dar información, aunque en las mismas no se vote. La concejal Nerea le responde que no se esconde información, y que el concejal Andoni pide mucha información y que se le da.

Toma la palabra el concejal Ramón, señalando que está preparando la comisión con los técnicos municipales, pero al indicar que se ha retrasado para poder prepararla bien, el concejal Andoni comenta, por una parte, que ha solicitado el informe de Behemendi y no lo ha recibido, y por otra, que si hay información como para remitirlo a la prensa, también para informar a los concejales. El concejal Ramón le responde que está de acuerdo con eso último.

c.- Udal langileen zigor-espedienteak.

Andoni zinegotziak alkateak langile batzuei zigor-espediente bat irekitzearekin mehatxu egin diela kalean jakin duela eta gai horren inguruko informazioa eskatu du.

Alkateak hartu du hitza eta langileek burla egin zietela esan, eta Andoni zinegotziak zer burla egin zioten galdetzean, alkateak adierazi du jaiotza jartzen duen emakume taldeak komentatu ziotela brigadako langileek urtero laguntzen dietela jaiotza jartzen, eta badakiela horiek ez dietela gezurrik esan. Baina aurten udal langileak gauzak eraman eta ez zietela lagundu, eta alkateak jartzeko eskatzean, langileek hori ez zutela beraiek egiten erantzun zietela, gezurra esan zutela.

Andoni zinegotziak lana planifikatuta zegoen galdetu du, beste urteetan, hile hasieran planifikatzen baita. Alkateak erantzun dio 2 egun lehenago esan zitzaiela eta urtero egiten den zerbait bada, egin behar zutela, eta urteroko ekintzen lanak planifikatu beharko liratekeela.

Andoni zinegotziak lanak planifikatzea ongi deritzo, baina ez zigor espediente bat irekitzearekin mehatxatzea, eta alkateak udal aholkulari juridikoari espedientea nola ireki galdetuko ziola esan ziela langileei.

Alkateak hori esan zuela baieztatu ondoren, irekitzeko ez duela eskatu adierazi du, legez eskatzerik duen arren, errespetu falta iruditzen baitzaio brigadak jaiotza jartzen ez lagundu izana eta gezurra esan izana. Eta azkenean 4 zinegotzi lagundu behar izan zutela lan hori egiten.

c.- Expedientes disciplinarios a los trabajadores municipales.

El concejal Andoni indica que se ha enterado en la calle que el alcalde ha amenazado a algunos trabajadores con la apertura de un expediente disciplinario, por lo que solicita información al respecto.

Toma la palabra el alcalde, y señala que los trabajadores se burlaron de ellos. El concejal Andoni le pregunta de qué manera se burlaron, y el alcalde explica que el grupo de mujeres que poner el belén le comentaron que todos los años los trabajadores de la brigada les ayudan en esa tarea, y que se fía totalmente de su palabra. Pero que este año los trabajadores llevaron las piezas del belén y no les ayudaron a colocarlas, y que cuando el alcalde les pidió que lo hicieran, le contestaron que ellos no lo hacían, que le mintieron.

El concejal Andoni pregunta si el trabajo estaba planificado, ya que otros años se planifica a principios de mes. Y el alcalde le responde que se les avisó con 2 días de antelación, y que tratándose de algo que se hace todos los años, tienen que hacerlo, y que todas las actividades anuales habría que planificarlas.

Al concejal Andoni le parece bien planificar los trabajos, pero no amenazar con la apertura de un expediente disciplinario, y recuerda que el alcalde les dijó a los trabajadores que preguntaría a la asesora jurídica municipal cómo se abre un expediente.

El alcalde reconoce haber hecho esa afirmación, y señala que no ha solicitado la apertura aunque legalmente pueda hacerlo, pues le parece una falta de respeto que la brigada no ayudase a poner el belén, y además mintiendo. Y que al final 4 concejales tuvieron que ayudar a hacer ese trabajo...

d.- Etxe hutsak

Andoni zinegotziak urtea bukatu dela eta etxe hutsak dituzten jabeei ez zaiela idatzirik bidali adierazi du.

e.- Azoka.

Andoni zinegotziak urtarrilaren 23an azoka berri bat egingo dela, kartelen bidez jakin dutela adierazi du. Eta merkatariekin aurrekoaren balorazioa egin den galdetzean, Siadekorekin eta Astikoren lehendakariaren hitz egin dutela eta azken horrek aurreko azokan jende mugimendua sumatu zutela baina ez zutela ez irabazirik ez galerarik nabaritu esan diola adierazi du alkateak. Eta merkatariekin proba bezala bizpahiru azoka egitea adostu zela.

Andoni zinegotziak Astikoren lehendakariak supermerkatu baten jabe dela eta eragina denda mota horretan eta denda txikietan ez dela berdin erantzun dio. Bestetik, behin betikoz onartu gabe dagoen ordenantzan, azokak hileko 1. larunbatean egitea aurreikusten denez, data ez errespetatzea harritu egin diela adierazi du.

Alkateak data finkoa balorazioa egin eta Siadekorekin hitz egin ondoren ezarriko dela adierazi du, eta azoketan federatuak, ez federatuek eta herriko dendariak har ditzaketela parte. Andoni zinegotziak erantzunez komertzio txikietako jabeek ez dituztela baliabiderik azokan parte hartzeko, eta gainera askok ez dutela Astiko elkartean parte hartzen.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza eta Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (*PERCO*) lan ildo hartuta jarraituko dutela lanean adierazi du, eta Andoni zinegotziak gaia zer batzordetan landuko den galdetzean, Zorione zinegotziak enplegua gizarte zerbitzutik bideratzen denez, komertzioa ere bertatik bideratuko dela adierazi du.

d.- Viviendas deshabitadas

El concejal Andoni señala que el año ya ha concluido y los propietarios de viviendas deshabitadas siguen sin recibir un escrito.

e.- Mercado.

El concejal Andoni señala que por unos carteles se han enterado que el 23 de enero se organizará un nuevo mercado. Y a la pregunta de si se ha hecho alguna valoración con los comerciantes, el alcalde responde que han hablado con Siadeko y con el presidente de Astiko, y que este último les ha señalado que en el anterior mercado notaron bastante movimiento de gente, pero sin pérdidas ni ganancias. Y que a modo de prueba acordaron con los comerciantes organizar dos o tres mercados.

El concejal Andoni señala que el presidente de Astiko es dueño de un supermercado, y que el impacto es diferente en un supermercado y en las tiendas pequeñas. Por otra parte señala que le ha sorprendido que la ordenanza municipal pendiente de aprobarse definitivamente prevea los mercados el primer sábado de cada mes, y no se haya respetado dicha fecha.

El alcalde señala que la fecha definitiva se establecerá tras la valoración y hablar con Siadeko, y que en el mercado pueden participar los comerciantes federados, los no federados y a los comerciantes del pueblo. El concejal Andoni responde que los dueños de pequeños comercios no disponen de medios para participar en el mercado, y que además muchos no participan en la asociación Astiko.

Toma la palabra la concejal Zorione e indica que continuarán adelante tomando como línea de trabajo el PERCO. El concejal Andoni pegunta qué comisión se encargará del tema, y la concejal Zorione señala que considerando que el empleo se gestiona a través de los servicios sociales, el comercio se gestionará de la misma.

f.- Herri galdeketa.

Andoni zinegotziak galdeketaren prozeduraren nondik norakoak proposatuz idazkariak egindako txostena noiz aztertuko den galdetzean, Nerea zinegotziak aurreko parte-hartze batzordean esan bezala, aztertzeko egun batzuk eman ondoren landuko dela erantzun dio.

Andoni zinegotziak txostena abendukoa dela eta aztertzeko denbora egon dela adieraztean, Nerea zinegotzia deialdia hurrengo asterako egingo dela adierazi du.

f.- Consulta popular.

El concejal Andoni pregunta cuándo se analizará el informe realizado por la secretaria proponiendo las características del procedimiento de consulta, y la concejal Nerea le responde tal y como se dijo en la anterior comisión participativa, se analizará tras dar unos días para su estudio..

El concejal Andoni señala que el informe es de diciembre y que ya han tenido tiempo de analizarlo, y la concejal Nerea responde que la convocatoria se hará para la semana siguiente.

g.- Inuxente Lasterketa.

Inoxente lasterketan parte hartu eta lagundu duten guztiei Astigarragako EHBilduk eskerrak ematen dietela aktan jasotzea eskatzen du Andoni zinegotziak.

g.- Inuxente Lasterketa.

El concejal Andoni solicita que quede reflejado en el acta su agradecimiento a todas las personas que han participado y ayudado en la Inuxente lasterketa.

h.- Bertaratuko herritarren parte hartzea.

Herritar batek aurreko bileran alkateak gaizki aparkatzen duela salatu zuela eta gabonetan ere kotxea edozein lekuetan utzi duela adierazi du, eta horren frogak dituela. Eta alkateari berak legea hausten badu zigorrak zer autoritatearekin jarriko dituen, eta bere jarrera aldatuko duen galdetu dio. Azkeneko galderari dagokionez, alkateak baiezkoa emanaz.

Bestalde, herritar berak azaroaren 21eko udal osoko bilkuran, zinegotzi batzuk bere txakurrak lotu gabe ateratzen dituztela eta beraz animalien ordenantza aldatu beharko litzakeela esaterakoan, Zorione zinegotziak “hijo de puta” deitu ziola salatu du, hori entzun zuten testiguak dituela adierazi eta zinegotziari eskatzen dio, hori esan zuela aitortzea eta bakarmena eskatzea, edo bestela dimititu dezala.

f.- Participación de los vecinos asistentes

Un ciudadano señala que en la anterior reunión denunció que el alcalde aparca mal, y que también en navidades ha estado aparcando en cualquier sitio, aportando pruebas para ello. Y pregunta al alcalde qué autoridad tiene para poner las multas si él también infringe la ley, y si piensa cambiar de actitud. Con respecto a la última pregunta, el alcalde responde que sí.

Por otra parte, ese mismo vecino denuncia que cuando en el pleno de 21 de noviembre señaló que algunos concejales sacan a sus perros sin atar y que por lo tanto habría que modificar la ordenanza de animales, la concejal Zorione le llamó “hijo de puta”, y que tiene testigos que lo escucharon, por lo que solicita a la concejal que reconozca que lo hizo y que pida perdón, o que en caso contrario presente su dimisión.

La concejal Zorione señala que eso no es

Zorione zinegotziak hori egia ez dela adieraztean, bizilagunak oposizioari neurriak hartzeko eskatu dio.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta harrituta dagoela adierazi, berak ez zuela ezer entzun, baina ez duela zalantzetan jartzen herritarren testiguek esandakoa, eta zinegotzien parte-hartzeak grabatzen diren galdetu du.

Zorione zinegotziak aktan jasotzea zergatik ez duen eskatu galdetu du, eta bizilagunak egin ditzakeen ekarpena hori bada, lotsagarritzat hartzen duela, eta kritika politikoa egin ordez eta jasaten duten persekuzioaren ordez, ekarpenak egitea eskatu dio.

Ione eta Andoni zinegotziak gaia beraiek ez dutela atera adierazi dute eta Andoni zinegotziak pleno honetan landatutako 5 gaietatik 3 beraien ekarpenak izan direla eta beste bat auzi-errekurtso baten emaitza dela esan du.

Bizilaguna eta Zorione zinegotziaren artean eztabaida sutsu baten ondoren, Ione zinegotziak hartzen du hitza eta eztabaida hau osoko bilkura batean egitea penagarria iruditzen zaiola adierazi ondoren, Zorionek esandako berak entzun zuela adierazi du, eta ez zuela ozen esan, eta hitz minduak ziruditela, baina esan zuela.

Mikel zinegotziak hartzen du hitza, eta berriro ere bizilagunen testiguak esaten dutena zalantzan ez duela jartzen adierazi ondoren, legealdi osoan berek ez duela irainik entzun esan ondoren, idazkariari grabaketa sistemarik dagoen galdetu diola adierazi du, egongo balitz egiaztatzerik egongo litzakeelako. Eta bukatzeko grabaketa-sistema bat jartzea proposatu du, arazo hauekin bukatzeaz gain, aktak idaztea erraztuko lukeelako.

cierto, y el vecino pide a la oposición que adopte medidas.

El concejal Mikel toma la palabra y muestra su extrañeza, señalando que él no escuchó nada, pero que no pone en duda las declaraciones de los testigos del vecino, preguntando a continuación si las intervenciones de los concejales se graban.

La concejal Zorione pregunta por qué no solicita su inclusión en el acta, y que le parece lamentable que la aportación de ese ciudadano se reduzca a eso, invitándole a realizar aportaciones en vez de hacer críticas políticas y alegar persecuciones.

Los concejales Ione y Andoni señalan que ellos no han sacado el tema, y el concejal Andoni indica que de los 5 temas tratados en la sesión plenaria 3 han sido aportaciones de su grupo, y un cuarto el resultado de un recurso contencioso.

El vecino y Zorione se enfrascan en una acalorada discusión, la concejal Ione toma la palabra y, tras señalar que le parece penoso traer esta discusión a un pleno, señala que ella escuchó esas palabras de boca de Zorione, que no las dijo en alto y que parecían palabras sentidas, pero que las dijo.

Toma la palabra el concejal Mikel, y tras señalar que no pone en duda los testimonios de los testigos, y que en toda la legislatura él no ha escuchado ningún insulto, añade que ha preguntado a la secretaria municipal si existe sistema de grabación, y que de existir se podría comprobar. Y para finalizar propone instalar un sistema de grabación, que además de acabar con estos problemas facilitaría la redacción de las actas.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko urtarrilaren 18an

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**
**Ordezko idazkaria**